

20 — 21

EUSKADIKO ORKESTRA



BARTOK | MENDELSSOHN

GAZTEAK JÓVENES

MAIATZAK 4 MAYO

19:30h.

PAMPLONA / IRUÑA
Auditorio BALUARTE Auditoriuma

euskadikoorkestra.eus

EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular

ROBERT TREVIÑO

Musikariak / Los músicos

KONTZERTINOA / CONCERTINO

Pablo Hernán

I BIOLINAK / VIOLINES I

Waldemar Machmar (1)

Irene Echeveste (3)

José Ignacio Aizpiri

Inmaculada Aramburo

Laura Balboa

Xabier de Felipe

Marie Gaillard

Alexandre Kozouline

Oscar López

Maite Menéndez

Larraitz Oiartzabal

Ortzi Oihartzabal

Itzulia Prieto

Maialen Rezabal

Cristina Vértiz

BIOLONTXELOAK / VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)

Gabriel Mesado (2)

Flore Lefevre (3)

Natalia Díaz

Jacek Grabe-Zaremba

Jon Larraz

Beatriz Linares

Pascale Michaud

Ian Swedlund

TRONPAK / TROMPAS

Jean-Luc Casteret (2)

Cristian Palau (2)

Adrián García Carballo

Marcos Garrido (4)

Xabier Sarasa

Salvador Tudela

TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)

Miguel Echepare (2)

Jesús Castillo

Daniel Sancasto

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)

Christophe Sánchez (2)

Javier Almarza

Hervé Cahen

Daniel Ruibal (4)

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA / TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)

Héctor Marqués (2)

Igor Arostegui

Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

KLARINETEAK / CLARINETES

Luis Cámará (2)

José Miguel Chirivella (2)

Juan Navarro (2)

Stéphane Langlois

Sara Zufiaurre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)

Pawel Krymer (2)

Monika Mazur (3)

Joaquín Arias

Pascal Arnaud

Natacha Dupuy-Scordamaglia

Justyna Janiak-Krymer

Arkaitz Martínez

Sergio Montero

Inés Picado

Yann Seyrac

FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)

François Proud (2)

Yuan Dai

Anne Charlotte Lacroix

(1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino

(2) Bakalaria / Solista

(3) Lehen tuttia / Primer tutti

(4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

4

MAIATZAK ~ MAYO

HANS GRAF

Zuzendaria / Director

BIRGIT KOLAR

Biolina / Violín

EUSKADIKO ORKESTRA

EGITARAUA ^ PROGRAMA:

BELA BARTOK (1881–1945)

Concierto nº1 para violín y orquesta, Op. Posth. [21']*

Argitaletxea/ Edita: Boosey & Hawkes, Inc.

I. Andante sostenuto

II. Allegro giocoso

FELIX MENDELSSOHN (1809–1847)

Sinfonía nº1 en do menor, Op. 11 [32']

I. Allegro di molto

II. Andante

III. Menuetto: Allegro molto

IV. Allegro con fuoco

*Euskadiko Orkestrak lehen aldiz interpretaturiko obra.

*Obra interpretada por primera vez por Euskadiko Orkestra.

Babeslea / Patrocina

Ingeteam



GAZTEAK

Gaurkoan berriro daukagu gure artean **Hans Graf** maisua; Euskadiko Orkestraren ohiko kolaboratzailea izan da azken 30 urteetan eta, are gehiago, bi denboralditan, 1994. eta 1996. urteen artean, zuzendarri titular gisa jardun zuen. Linz (Austria) ondoko Marchtrenk herrian jaio zen 1949an eta, 18 urte zituela, Grazera joan zen hiriko Musikhochschule ospetsuan prestakuntza hartzeko. Handik Italiara joan zen zuzendaritza ikastera eta, han, besteak beste, Franco Ferrara eta Sergiu Celibidache izan zituen irakasle, prestigio handikoak. Hezkuntza-ibilbidea amaitzeko, San Petersburgon egon zen, Arvid Jansons zuzendarriaren eskolak hartzen. Handik gutxira, ardura-postuak hartzen hasi zen. Lehenik Bagdadenean; 1975-76 aldian, Irakeko Orkestra Sinfoniko Nazionala zuzendu zuen. Ondoren, 1979an, Karl Böhm Lehiaketa irabazi eta Erdialdeko Europako opera-etxe nagusietan debuta egin eta gero, munduko formaziorik zaharrenetako batek fitxatu zuen, Salzburgoko Mozarteumeko Orkestrak eta 1984. eta 1994. urteen artean jardun zuen zuzendarri bertan.

Euskadiko Orkestran egon ondoren –denbora laburra baina oparoa izan zen–, Graf Calgaryko Filarmonikaren (1995-2003) eta Bordele-Akitaniako Orkestra Nazionalaren (1998-2004) zuzendarri titularra izan zen, besteak beste, baina harreman estuena eta luzeena Houston Symphony orkestrarekin izandakoa da, 2001etik 2013ra arte gidatu baitzuen, Christoph Eschenbach maisuaren lekuoa hartuta. Badago garai hartako bitxikeria bat: Graf ardetan aditu handia izaki, ardo bakoitzañ n̄abardurak azaltzen zizkien Houston Symphony orkestrako ongileei urtero antolatzen zen dastatze-saio batean, zeina hiriko ekitaldi sozial ospetsu bat izatera iritsi baitzen.

Bartoken Biolineraiko 1. kontzertua zeharo maitemindutako egileek idatzitako obren zerrenda zabala eta hautatu horretan dago. 1907an, Bartok sutsuki maiteminduta zegoen Stefi Geyer biolinjolearekin, eta modernismoaren eta errromantizismoaren artean mugitzen den kontzertu hori oparitu zion; 26 urteko konpositore gaztearen esanetan, huraxe zen bere musikariak “zuzenena, bihotztek bakarrik idatzia”. Baino Geyerrek errefusatu egin zuen konpositorearen maitasuna eta Bartokek, haserre, bertan behera utzi zuen estreinaldia. Nolanahi ere, birziklatu egin zuen hasierako mugimendu lirikoa, handik gutxira idatzitako *Bi erretratuak* obrako lehendabiziko mugimenduan erabiltzeko; bigarren mugimendua, berriz, *Grotesque izeneko scherzo* ziniko bat da, eta izenburuak bikain laburbiltzen du Geyerri buruz zuen iritzi berria.

Kontzerturako planak ezerezean geratu baziren ere, amaitutako bi mugimenduen eskuizkribua Geyerri bidaltzea erabaki zuen Bartokek (une batean, bere maitearen alde “hotza, axolagabea, isila” irudikatuko zuen hirugarren mugimendu bat idazteko asmoa izan zuen, baina azkenean ez zuen egin). Halaber, Bela Balazsen –gerora Bartoken *Bizarrurdinen gaztelua* operako libretoaren egilea izango zena– olerki luze bat gehitu zuen, honako esaldi mingarri hau biltzen duena: “Ez daude bi izar elkarrengandik bi giza arima bezain urrun daudenak”. Geyerrek eskuizkribua beretzat harti zuen, baina ez zuen inoiz ukitu. Geyer 1956an hil eta gero interpretatu zen lehen aldiz kontzertua, 1958. urtean.

Atzean istorio bitxia duen arren, kontzertu hori ez da *Biolineraiko 2. kontzertua* bezain ezaguna; azken lan hori hogeita hamar urte geroago idatzi zuen, erabat garatutako lengoaia batean eta aztarna postromantikorik gabe. Edonola ere, bigarren kontzertua arretaz aztertzugero, ikus daiteke lehenengoan jada agertzen diren aurkikuntza asko biltzen dituela, egiazki, hala nola solistik eta orkestrak ezartzen duten harreman mota eta, bereziki, material musicalaren garapena, bariazioaren printzipioari jarraituz. Azken hori tradizio handiko forma bat da Bartok eta haren gisako pianojole/konpositorearen artean, eta hungariarrak gaztetatik erakutsi zuen hura balilatzeko joera.

Gure artean aski ezaguna den biolinjole batek joko du gaur kontzertu berezi horretako solistaren zatia. **Birgit Kolar** Euskadiko Orkestraren kontzertino nagusi gonbidatua da, eta hainbatetan igo da Euskal Herriko agertokietara Euskadiko Orkestraren hari-ataleko buru. Hala ere, haren hurbiltasuna

dela-eta ezin dugu ahaztu nazioartean prestigio handiko biolinjolea dela Kolar. 1992an finalista eta saritua izan zen Yehudi Menuhin Nazioarteko Lehiaketan, eta bertan kontzertu bat eskaini zuen Menuhin beraren gidaritzapean. Europako, Japoniako eta Hego Amerikako jaialdi ugaritan eskaini ditu kontzertuak solista gisa, eta 1999az gerotzik mailarik gorenearan landu du gambera-musika Münchner Streichquartett eta Seraphin Quartett Wien hari-laukoteekin. Baina, agian, kontzertinoarena izan da bere jardunik aktiboena azken urteotan; izan ere, Euskadiko Orkestrarekin egin duen lanaz gain, kontzertinoa izan da beste orkestra batzuetan, hala nola Vienako Sinfonikoan eta Municheko Irratiko Orkestran. Bestalde, maiz jasotzen du beste orkestra batzuen gonbidapena, horien artean BBC Philharmonic orkestrarena, Bergengo Filarmonikarena, Kopenhageko Filarmonikarena eta Vienako Filarmonikarena.

Bartoken lana gizon gazte baten sorkuntza bada, **Mendelssohnen 1. sinfonía** nerabezaroan sartu berri zen egile baten adierazpena da. *Lehen sinfonía* izendapenak artista hasi berri baten saiakera dela pentsaraz diezaguke, baina ez da ahaztu behar Mendelssohnek 14 urte eta erdi zituenerako jada hamabi sinfonía idatzi zituela –hori bai, hari instrumentuetarako sinfoniak ziren–. 1824an ekin zion lan berri hori sortzeari. Berez, *13. sinfonía* izena jartzeko asmoa zuen, baina, aurrez egin zituen lanekin alderatuta lan berri horretan gertatzen den konposizio-anbizioaren aldaketak bultzatuta, konpositore gazteak bere hasierako ideia baztertu eta sinfonía handien multzo berri bateko *Lehen sinfonía* izango zela erabaki zuen. Mendelssonhek bost sinfonía idatzeko denbora izan zuen, gazte hil baitzen, 34 urterekin.

Lindsay Kemp musikologoaren arabera, "ez zen haize-instrumentuen presentzia soilik izan, haurtzaroko lanen aldean, beste kategoria batera eraman eta zenbaketa-sekuentzia berrabiarazi zuena. Sinfonia horretan, segurtasun maila handiago bat antzematen da; une batzuetan argi eta garbi eratortzen da Mozart, Beethoven edo Weberrengandik, baina obrak duen kemenak eta eraikuntzak gaitasun harrigarría erakusten dute hain gaztea den konpositore batengan".

Izan ere, sinfonía horrek bere lehen konpasetatik komunikatzen duen indar eta intentsitate emozionalak berehalako kokatzen gaitu erromantismoaren atarian, nahiz eta haren egiturek eta baliabideek oraindik ere klasizismoaren kanon ugaritik edaten duten. Hasierako *Allegro di molto*-ok, hain zuzen, badu Beethovenen lan batzuetan hain bereizgarria den zurrubnilo hori, eta, erreferente horren bidez, gogorarazten dizkigu, halaber, Haydhen *Sturm und Drang* aldioko sinfonía batzuk. *Andante*-a, itxuraz motela den arren, figura erritmikoan hondo tenkatu eta jarraitu baten gainean hedatzen da; figura horiek, batzuetan, sinkopatuak ere badira eta ez diente lasaitzeko betarik ematen etengabe aldatzen ari diren melodiei. Hirugarren mugimenduko *minuet* dibertigarriak, adierazpen propio eta espontaneo bat baino gehiago, iraganari nahita egindako omenaldia izatearen sentsaioa transmititzen du, eta *finale* frenetikoa da –abiatzean hain mozartarra dirudiena– ezagurri mendelssohndar definituagoak hartzen dituena zenbait pasarte ederretan, hala nola harien *pizzicati*-en gaineko klarineteelean.

Urte batzuk geroago, 1829an, hogei urte bete berrian, Mendelssohnek Londresera bidaiatu zuen, eta sinfonía hori berreskuratu nahi izan zuen berak zuzendu behar zuen kontzertu baterako. Hala ere, bere begi kritikoek huts asko aurkitu zitzuten ia haurtzaroko zen partitura harten. "Nire sinfonía errepasatu nuen eta... Jainko maitea! *Minuetak* asperrarazi egin ninduen negar eragiteraino, zinez monotonoa eta pleonastikoa baitzen", idatzi zien gurasoei. "Horrenbestez, nire harietarako Okteto-ko Scherzo-a hartu nuen, tronpeta arinak erantsi nizkion eta erabat zoragarria bilakatu zen". Bertsio alternatibo horri, beraz, mugimendu bat ordezta zion eta beste hainbat xehetasun berrikusi zizkion. Aurrerantzean Londresko bertsioa izendapenarekin egin zen ezagun eta ia mende oso batez jarraitu zen interpretatzen Erresuma Batuan. Nolanahi ere, azkenean, bere nerabezaroan idatzi zuen jatorrizko bertsioa da erreperitorioan gailendu dena, eta, hain zuzen, hori da gaur entzungo duguna.

Mikel Chamizo

JÓVENES

Hoy volvemos a recibir al maestro **Hans Graf**, un colaborador habitual de Euskadiko Orkestra en los últimos 30 años y que incluso llegó a dirigirla como titular durante dos temporadas, entre 1994 y 1996. Nacido en 1949 en Marchtrenk, un pequeño pueblo cercano a Linz (Austria), Graf marchó con 18 años a Graz para formarse en la prestigiosa Musikhochschule de la ciudad. De allí pasó a Italia para estudiar dirección con figuras de la talla de Franco Ferrara y Sergiu Celibidache, cerrando su periplo formativo en San Petersburgo con Arvid Jansons. Poco después comenzó a asumir puestos de responsabilidad: primero en Bagdag, ya que durante 1975-76 dirigió a la Orquesta Sinfónica Nacional de Irak; y más tarde, tras ganar el Concurso Karl Böhm en 1979 y debutar en las principales casas de ópera de Centroeuropa, fichó por la Orquesta del Mozarteum de Salzburgo, una de las formaciones más antiguas del mundo, que dirigió entre 1984 y 1994.

Tras su paso, breve pero fructífero, por Euskadiko Orkestra, Graf asumió la titularidad de orquestas como la Filarmónica de Calgary (1995-2003) o la Orquesta Nacional de Burdeos-Aquitania (1998-2004), pero su vinculación más importante y duradera ha sido con la Houston Symphony, que lideró desde 2001 a 2013 sucediendo a Christoph Eschenbach. Como curiosidad, Graf es un gran experto en vinos, y la cata anual en la que explicaba los matices de los diferentes caldos a los benefactores de la Houston Symphony llegó a ser un acto social célebre en la ciudad.

El **Concierto para violín nº1 de Bartok** pertenece a esa selecta –y extensa– lista de obras escritas por compositores perdidamente enamorados. En 1907 Bartok bebía los vientos por la violinista Stefi Geyer y le regaló este concierto atrapado a medio camino entre el modernismo y el romanticismo, que el joven compositor de 26 años consideraba su música “más directa, escrita exclusivamente desde el corazón”. Pero Geyer rechazó su amor y Bartok, despechado, canceló el estreno. Recicló, eso sí, el lírico movimiento inicial para el primero de los *Dos retratos*, escritos poco después, del que el segundo es un cínico scherzo titulado *Grotesque*, que resumía muy bien su nueva opinión sobre Geyer.

Aunque los planes para el concierto se quedaron en nada, Bartok decidió enviar igualmente el manuscrito de los dos movimientos terminados a Geyer (en un momento dado planeó escribir un tercero que representaría el lado “frío, indiferente, silencioso” de su amada, pero no llegó a hacerlo). Añadió también un largo poema de Bela Balazs, el futuro libretista de su ópera *El castillo de Barbazul*, que contiene la dolorida frase “No hay dos estrellas tan distantes como dos almas humanas”. Geyer se quedó el manuscrito pero nunca llegó a tocarlo, y no fue hasta su muerte en 1956 cuando el concierto fue interpretado por primera vez, en 1958.

Pese a lo curioso de su historia, este concierto sigue siendo mucho menos popular que el **Segundo concierto para violín**, escrito treinta años más tarde en un lenguaje ya plenamente desarrollado y sin posos posrománticos. Pero una observación detenida nos indica que el segundo concierto en realidad recoge muchos hallazgos ya presentes en el primero, como el tipo de relación que establecen solista y orquesta y, particularmente, el desarrollo del material musical siguiendo el principio de la variación, una forma con enorme tradición entre los pianistas-compositores como Bartok y por la que el húngaro mostró inclinación desde muy joven.

La parte solista de este peculiar concierto la abordará hoy una violinista bien conocida en nuestras filas. **Birgit Kolar** es la concertino principal invitada de Euskadiko Orkestra y se ha subido a los escenarios vascos liderando su sección de cuerdas en innumerables ocasiones. Pero su cercanía no debe hacernos olvidar que Kolar es una violinista de talla internacional.

En 1992 fue finalista y premiada en el Concurso Internacional Yehudi Menuhin, donde dio un concierto bajo la batuta del propio Menuhin. Ha ofrecido conciertos como solista en varios festivales de Europa, Japón y Sudamérica, y desde 1999 trabajó al más alto nivel la música de cámara con los cuartetos de cuerda Münchner Streichquartett y Seraphin Quartett Wien. Pero quizás su faceta más activa en los últimos años ha sido la de concertino, ya que además de su labor con Euskadiko Orkestra, ha sido también concertino de orquestas como la Sinfónica de Viena o la Orquesta de la Radio de Múnich, y es invitada regularmente por orquestas como la BBC Philharmonic, Filarmónica de Bergen, Filarmónica de Copenhague o la mismísima Filarmónica de Viena.

Si la obra de Bartók es la creación de un hombre joven, la **Sinfonía nº1 de Mendelssohn** es la expresión de un autor que acababa de entrar en la adolescencia. Pero aunque la denominación de *Primera sinfonía* pueda hacernos pensar que se trata del intento de un artista primerizo, no hay que olvidar que a sus 14 años y medio Mendelssohn había escrito ya doce sinfonías –eso sí, solo para cuerdas–. Esta nueva obra que inició en 1824 iba a llamarse, de hecho, *Sinfonía nº13*, pero el cambio de ambición compositiva que se produce en ella con respecto a las anteriores llevó al joven compositor a reconsiderarla y bautizarla como *Primera* de una nueva serie de grandes sinfonías, de las que llegaría a escribir cinco antes de su prematura muerte con 34 años.

Según el musicólogo Lindsay Kemp, "no es solo la presencia de instrumentos de viento lo que la colocó en una categoría diferente a las obras de la infancia y lo que resultó en el eventual reinicio en la secuencia de numeración. Se trata de una sinfonía en la que se detecta un nivel más alto de seguridad en sí mismo; por momentos deriva claramente de Mozart, Beethoven o Weber, pero su brío y su construcción muestran ya una habilidad asombrosa para un compositor de tan tierna edad".

En efecto, el vigor e intensidad emocional que comunica esta sinfonía desde sus primeros compases nos sitúan inmediatamente a las puertas del Romanticismo, aunque en sus estructuras y recursos todavía beba en abundancia de los cánones del Clasicismo. El *Allegro di molto* inicial, sin ir más lejos, contiene esa turbulencia tan característica de algunas obras de Beethoven y, a través de este referente, recuerda incluso a algunas sinfonías de Haydn del período *Sturm und Drang*. El *Andante*, aunque aparentemente lúgubre, se despliega sobre un tenso fondo continuo de figuras rítmicas, a veces incluso sincopadas, que no permiten relajarse a unas melodías en constante variación. El divertido *Minuetto* del tercer movimiento transmite cierta sensación de ser un homenaje deliberado al pasado más que una expresión propia y espontánea; y es el frenético *finale*, que suena tan mozartiano en su arranque, el que adquiere rasgos mendelssohnianos más definidos en pasajes tan hermosos como el de los clarinetes sobre los *pizzicati* de las cuerdas.

Unos años más tarde, en 1829, recién cumplidos los veinte, Mendelssohn viajó a Londres y quiso recuperar esta sinfonía para un concierto que habría de dirigir él mismo en la capital británica. Sin embargo, sus ojos críticos hallaron muchos fallos en aquella partitura de casi niñez. "Repasé mi sinfonía y... ¡Dios mío!, el *Minuetto* me aburrió hasta hacerme llorar, de lo monótono y pleonástico", escribió a sus padres. "Así que tomé el *Scherzo* de mi Octeto para cuerdas, le añadí unas trompetas ligeras, y sonó absolutamente delicioso". Esta versión alternativa, con un movimiento sustituido y revisada también en muchos otros detalles, conocida como versión de Londres, se siguió interpretando en el Reino Unido durante casi un siglo. Pero la que finalmente se ha impuesto en el repertorio es la versión original que escribió en su adolescencia, y que es la que escucharemos hoy.

La energía de la música



En la música hay un gran intercambio de energía. En Ingeteam vemos en este concierto de Euskadiko Orkestra la representación perfecta de nuestra labor. La fusión entre innovación y tradición, esa integración entre los distintos elementos de la orquesta que componen una gran obra, capaz de llegar a la sociedad. La técnica unida al arte.